2017-X-20
Número **535.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

# astekaria

## EDITORIALA

### Nekeak hil egiten gaitu!

**Urriaren 9tik 13ra Nazioarteko Garraio Federakundeak Garraiolarien kanpaina sindikala deitu zuen, errepidezko merkantzia-garraioa jasaten ari den desarautzea eta liberalizazioa salatzeko. ELA, bertako kide izanik, bat egin zuen. Kanpainak sektorean egin ohi diren lanaldi luzeak salatzea du helburuen artean; ohikoak dira bolantearen aurrean 10, 11 eta 12 ordu egiteraino luzatzen diren lanaldiak.**

**Horrekin, sistematikoki urratzen da nazioartean arautako batez besteko lanaldi-muga. Hain zuzen ere, gehiegizko ordu horietan gidatzeak eragiten ditu gehienbat ulertezinak iruditzen zaizkigun istripu horiak (ikuspen oneko zuzenetan gertatutakoak...) Horren ondoriozko arriskua ez dute soilik garraiolari horiek pairatzen, baizik eta errepideetako gainontzeko erabiltzaileok ere jasan behar dugu.**

**Horretaz gain, azken urteotan, krisiaren aitzakiarekin enpresa piraten arduragabekeria izugarri hedatu da. Horren aurrean erakundeak sorgor diraute. Muturreko lehiakortasunak, prezioak mugarik gabe beheratzen gauzatutakoa, hainbat eta hainbat langileren kaleratzea eragin du gero xantaiaren bidez eta behartuta autonomo faltsu bilakatu dituztenak. Honen aurrean ere administrazioak, tamalez, ez du inolako neurririk hartu, jakin badakienean arau-maula ezkutatzen dela halako praktiken atzean. Autonomo faltsu horiek abusuzko lanaldiak egiten dituztela ezinbestean, sarritan zirkulazio-arauak ez betetzerainoko praktikekin, hilabete bukaerara iritsi eta kamioaren gastuei aurre egin ahal izateko.**

**Euskal Herrira begira ere gure salaketa gauzatu nahi izan genuen. Negoziazio kolektiboari dagokionean patronalaren utzikeria lotsagarria da, lan baldintzak eta segurtasuna hobetzeko bideari uko eginez. ELAn etenik gabe ari gara lanean sektorea behar bezala arautua izan dadin. Ildo horretatik, uztailean legez besteko proposamena aurkeztu genuen legebiltzarrean sektoreko arazo nagusiei aurre egiteko. Antolatu, salatu eta mobilizatu beharra dago. Ez dago besterik.**



**#EmanBostekoa Garaipenari!**

ELA EUSKAL SINDIKATUA — **ESPLOTAZIORIK EZ!**

## ELA anuncia movilizaciones en el sector de la construcción de Gipuzkoa para acabar con la precariedad

# "NO DESCARTAMOS PARALIZAR LAS PRINCIPALES OBRAS DE GIPUZKOA"

El panorama en el sector de la construcción de Gipuzkoa es desolador: más de 10 horas de trabajo al día, sueldos hasta un 50% por debajo de lo que marca el Convenio de la Construcción de Gipuzkoa, precariedad, fraude, numerosos accidentes laborales, destrucción de empleo… Y, tal vez, lo más grave: todo esto con el pasotismo *interesado* de las instituciones y con unas patronales –Adegi y Ascongi– que tienen nula voluntad de revertir esta extrema situación.

Ante esta realidad ELA ha decidido iniciar una campaña de denuncia y movilización para que se respete el Convenio de la Construcción de Gipuzkoa y se revierta la grave situación que viven las y los trabajadores del sector. Así lo anunciaron en Donostia el jueves 19 de octubre Igor San José y Luis Fernández, responsables del sector de la construcción.

"Es hora de dar un paso más en nuestra denuncia. Vamos a solicitar nuevas reuniones y comparecencias en las principales administraciones –Ayuntamiento de Donostia, Diputación y Gobierno Vasco–; hemos solicitado comparencias ante el CRL de todas las empresas y subcontratas de obras denunciadas; vamos a intensificar nuestras movilizaciones y denuncias..."

¿Y de seguir así? Igor San José y Luis Fernández lo tienen claro. "No descartamos la paralización de las obras. Vamos a iniciar un proceso de reuniones y asambleas para debatir el formato de lucha y posibles huelgas en el sector. Lo único que tenemos claro es que no vamos a parar hasta conseguirlo".

Los responsables de ELA explicaron al detalle la situación de las cinco principales obras que se están desarrollando en Gipuzkoa: Txomin-Enea, Deskarga, Anoeta, la incineradora y el TAV. "Cada obra tiene sus particularidades, pero hay un montón de características que son comunes. La precariedad es absoluta. Las y los trabajadores cobran entre 5 y 9 euros por hora de trabajo, lo que en muchos casas supone más de un 50% de lo que marca el convenio provincial. Las jornadas son abusivas –de 10 a 12 horas diarias– y, en la mayoría de casos, sin derecho a vacaciones, dietas, pagas o bajas por ITs..."






**En el centro de la imagen Igor San Jose y Luis Fernández junto a delegados/as del sector de la construcción en Gipuzkoa**

Igor San José y Luis Fernández destacan que ese es el escenario que encontramos casi en cualquier construcción de Gipuzkoa. "Mientras las y los trabajadores se dejan la piel e incluso la vida en el tajo, tanto las administraciones públicas como sus empresas amigas se forran los bolsillos. Las instituciones públicas saben perfectamente lo que pasa, porque desde ELA ya se los hemos explicado de primera mano. Por su parte las patronales no tienen ningún interés en dejar de explotar a miles y miles de personas con tal de seguir ganando millones y millones de euros".

### "SE PODRÍAN CREAR 5.000 EMPLEOS SOLO APLICANDO EL CONVENIO"

"Hablamos de unas patronales –añaden– que utilizan el miedo y el chantaje para seguir explotando a las y los currelas. Quieren evitar cualquier tipo de denuncia. No tienen ningún reparo en mandar a la calle a quien proteste o exija algo tan básico como que se cumpla el convenio del sector".

Estos responsables de ELA destacan que si en estas macroobras se respetara el convenio de la Construcción de Gipuzkoa se podrían crear en torno a 5.000 puestos de trabajo. "Todas las licitaciones de obras se hacen en base a la explotación de las y los trabajadores. Las administraciones adjudican obras a empresas sabiendo de antemano que esas empresas van a subcontratar absolutamente todo en condiciones laborales precarias y fraudulentas. Unas administraciones cuyo objetivo es terminar cuanto antes para poder cortar la cinta de la inauguración, aunque para ello miles de trabajadores/as hayan tenido que trabajar en condiciones de esclavitud".

## CCOO eta UGT sindikatuek Euskal Autonomi Erkidegoko Ostalaritzako I. Akordio Markoa inpugnatu dute; langile batzuen kasuan soldata %50 murrizteko arriskua dago

# "UGT ETA CCOO ESPAINIAKO PATRONALAREN LAN ZIKINA EGITEN ARI DIRA"



**Ezkerretik eskuinera Maricruz Elkoro, Adolfo Muñoz, Garbiñe Aranburu eta Saul Arangibel CCOO eta UGT sindikatuek EAEko Ostalaritzako I. Akordioa Marko inpugnatu dutela salatzeko urriaren 17an egindako agerraldian.**

***'Gezurra esan nuen Getarian, eta ni baino lehenago zen atarian'.*** Hala dio esaera zaharrak. Eta hala pasa zaie CCOO eta UGT sindikatuek Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten arduradunei. Makina bat aldiz publikoki esan dutena kontrajarriz, CCOO eta UGT sindikatuek Euskal Autonomi Erkidegoko Ostalaritzako I. Akordio Markoa inpugnatu dute.

Inpugnazio honek aurrera egitekotan ondorio lazgarriak izango lituzke ostalaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko langileengan. Langile batzuen kasuan soldata %50 murrizteko arriskua dago, urtean 8.200 euro gutxiago, eta urtean 50 ordu gehiago lan egin beharra.

Egoera hau salatzeko, ELA eta LAB sindikatueko ordezkariek agerraldi publikoa egin zuten urriaren 17an. (Bi sindikatuok ordezkaritzaren %77,48a dugu sektorean). ELA-Zerbitzuak federazioko idazkari-nagusi Maricruz Elkorok salatu zuenez, CCOO eta UGT sindikatuen asmoa argia da. "Ordezkaritza sindikala monopolizatu nahi dute, bost axola die langile hauen lan-baldintzak. Era berean, sindikatu hauen apustua identitarioa da, estatu osoko langileen lan-baldintzak homogeneizatu nahi dituzte, okerrera homogeneizatu arren, marko estatala defendatzen dutelako. Lan-baldintzen okertzea enpresarien eskutik etorri beharrean sindikatu horien eskutik etortzea eskandaluzkoa da".

Eusko Jaurlaritzaren jarrera ere salatu zuen Elcorok, aliantzak gutxiengo sindikalarekin egin nahi dituelako. "Hau horrela da asmo bera dutelako, euskal langileek ematen ez duten ordezkaritza sindikala beste batengatik aldatzea. Aliantza honek markatzen du gobernuaren autogobernuari buruzko aldarrikapena, bake soziala oparitzen dieten sindikatuei eman nahi diete ordezkaritza, euskal langileen erabaki esparrua ukatzen dutenak izan arren".

"Ez dago autogobernurik negoziazio kolektiboan euskal langileek negoziatzeko eskubiderik ez badute. CCOO eta UGTren salaketa honek erakusten du Madriletik edozein eremutan euskal herritarren erabakitze eskubidearen aurka arituko direla. Lehendakariak langileon defentsan aritu nahi badu eraso honen aurka irmoki erantzun beharko luke".

Hau guztiagatik Elkorok mobilizazioak iragarri zituen. Lehena urriaren 24an izango da, Bilbon, 11:00tan, Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean.

> *"El objetivo de UGT y CCOO es monopolizar la representación sindical y homogeneizar las condiciones de trabajo de todo el estado, sin importarles las condiciones laborales de los trabajadores y las trabajadoras. Solo así se entiende que impugnen el Convenio Marco de Hostelería de la CAPV, sabiendo que algunos salarios bajarían hasta un 50%"*

## CCOO, UGT Y PATRONAL BOICOTEAN LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA VASCA

**1. CCOO, UGT y la patronal española quieren que la negociación colectiva se articule a través de los convenios sectoriales y de empresa de ámbito estatal para eliminar nuestro derecho a negociar.**

**2. La firma por su parte del Acuerdo Interprofesional el mes de enero en la CAPV fue una pose para ocultar su estrategia contra los convenios vascos desarrollada desde Madrid.**

**3. Esa estrategia nos empobrece como clase trabajadora, además de fortalecer la posición de la patronal y de los gobiernos que quieren devaluar salarios o hacer ajustes presupuestarios.**

**4. Las patronales que quieren eliminar el Acuerdo Marco Sectorial de Hostelería forman parte de la CEOE, igual que Confebask. Queremos interpelar a esta última patronal, firmante también de dicho Acuerdo Marco, a que aclare cuál es su posición. Confebask debe dejar claro si está a favor de los marcos de negociación en la CAPV, posicionándose en contra de dicha impugnación y defendiendo el Acuerdo Marco Sectorial de Hosteleria o, por el contrario, se posiciona con aquellas patronales estatales que solo quieren coartar e, incluso, prohibir cualquier marco de negociación en la CAPV.**

**5. Actitudes como éstas debieran conllevar que el Gobierno de Urkullu disolviera la mal llamada Mesa de Diálogo Social. No hay autogobierno vasco sin negociación colectiva, y no es aceptable que mientras desde Madrid se sabotea la negociación colectiva vasca el Gobierno Vasco mantenga a los responsables de ese hecho sentados en esa mesa.**

**6. ELA reitera su compromiso con el deMarco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social y exigimos, asimismo, que se respeten las reglas de juego democráticas en el ámbito vasco para decidir, democráticamente, dónde y qué negociamos.**




## COMPARATIVA: CONVENIO ESTATAL VS CONVENIOS PROVINCIALES

| Convenio Restauración Estatal | Convenio Provincial Bizkaia |
|---|---|
| 5,97 € / hora | 10,62 € / hora |
| 10.747 € brutos año | 18.588 € brutos año |
| 1.800 horas al año | 1.750 horas al año |
| **Convenio Provincial Araba** | **Convenio Provincial Gipuzkoa** |
| 11,19 € / hora | 10,11 € / hora |
| 19.537 € brutos año | 17.427 € brutos año |
| 1.746 horas al año | 1.723 horas al año |

# LABURREAN / BREVES




## • Elkartasuna Omnium Cultural eta ANCri

Urriaren 16an Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Carmen Lamelak Jordi Cuixart –Omnium Culturaleko presidentea– eta Jordi Sanchez –ANC Biltzar Nazional Katalaneko presidentea– kartzeleratzeko agindua eman zuen. ELAk bere elkartasun osoa adierazi nahi die Omnium CulturaL eta ANC elkarteei, eta Cuixart eta Sanchez lehenbailehen aska ditzatela exijitzen du. Sindikatu honen ustez atxiloketak Espainiar estatuak Kataluniako herriaren aurka daraman jarrera errepresiboaren beste adibide bat besterik ez dira.



## • "Pobreziarekin amaituko duten politikak behar ditugu"

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deituta urriaren 17an mobilizazioa egin zen, Pobreziaren Ezabatzeko Nazioarteko Eguna zela-eta. ELA ekimen honen parte da, eta sindikatuko kide ugarik parte hartu zuten ekimenean. Kartaren ordezkariek salatu zutenez, "pobrezia gure artean dagoen arazo larria da. Milaka eta milaka dira Euskal Herrian pobrezia egoeran bizi diren lagunak. Ez diogu guk, erakunde ezberdinen estatistikei erreparatu besterik ez dago. Argi eta garbi salatu nahi dugu pobreziaren atzean erabaki politiko zehatz batzuk daudela. Horregatik sinetsita gaude posible dela arazo larri honekin amaitzea. Borondate politiko kontu hutsa da".

Ekimen herritar honen kideek argi utzi nahi izan zuten pobreziara kondenatu nahi gaituztela, "baina ez diegula utziko. Baditugu alternatibak, eta horiek ere azaldu ditugu. Etorkizunean ere mobilizatzen jarraituko dugu pobreziarekin amaituko duten politikak lortu arte".




## • Akordio bikaina Grupodesan

Grupodesako langileek enpresako lehen hitzarmena sinatu berri dute. ELAk Nafarroako metalean duen arduradun Jokin Arbeak albiste honen garrantzia azpimarratzen du. "Hitzarmenari esker langileen lan eta bizi baldintzak asko hobetuko dira. Soldatak, esaterako, Nafarroako Metaleko probintzia hitzarmenean jasotzen direnak baina handiagoak izango dira, nabarmen".

Arbeak langileek mobilizaziorako erakutsi duten adorea azpimarratu nahi du. "Akordioari esker langileek bertan behera utzi dute 28 egunez gauzatu duten greba mugagabea. Enpresaren bost ordezkariak ELArenak dira; honek erakusten du ELA dagoen tokietan posible dela UGTk eta CCOOk Nafarroako metalean ekainean sektoreko patronalekin sinatu zuten akordio negargarria hobetzea".

Grupodesak Eguesen eta Orkoienen ditu lantegiak, eta 70 langilek dihardute bertan.




## • Beasaingo Antzizar kiroldegiko langileak borrokan, lan hitzarmen duinaren alde

Beasaingo Antzizar kiroldegiko langileek hainbat mobilizazio egin zituzten iragan astean lan hitzarmena berritzeko negoziazioek ez aurrera ez atzera daudela salatzeko. Langileek salatzen dutenez martxoan hasi ziren negoziazioak; hala ere, urte erdia baina gehiago igaro den arren, udal zerbitzu hau kudeatzen duen enpresak ez du inolako urratsik eman.

"Gure hitzarmena 2016ko abenduaren azken egunean iraungi zen. Ordutik hona hamaika ahalegin egin ditugu akordio batetara heltzeko, baina enpresak ez du negoziatzeko borondaterik. Euren proposamena irailerako aurkeztuko zigutela hitzeman ziguten. Ez dute hitza bete. Ez dute batere asmorik agertu akordio batetara heltzeko. Ez dute ezer proposatu, ezarpenaren bidetik jokatu dute".

Langileek ere udalaren jarrera salatzen dute. "Udalak behin eta berriz dio ez dela bere ardura negoziazioan sartzea, baina ez dugu ahaztu behar gurea zerbitzu publikoa dela: instalazioen kudeaketa azpikontratatzen da, baina erantzukizuna politikoa da".



## • Txema Agirreri omenaldia, bere hilketaren 20. urtemuga dela-eta

Urriaren 13an 20 urte bete ziren ETAk Txema Agirre ertzaina tiroz hil zuenetik. Urtemuga honen harira ELAk omenaldi bat egin zion iragan astean gure sindikatuko afiliatu eta militante zenari. Ekitaldian ELA-Ertzaintzako ordezkariek azpimarratu zuten 20 urte igaro diren arren Txema Agirre guztion oroimenean jarraitzen duela.

## • Paros en la empresa Perfil en Frío del Grupo Condesa

El Comité de Empresa de Perfil en Frío, perteneciente al Grupo Condesa ha convocado paros y movilizaciones para las próximas semanas. (25-26 de octubre y 7-8 y 9 de noviembre). El motivo es el inmovilismo de la dirección en la negociación del convenio, paralizado desde 2014.

Después de siete meses de negociación, dejando a la plantilla sin convenio durante este tiempo, la última oferta que la empresa ha puesto encima de la mesa es una congelación para los años 2014-2015-2016 y un incremento del 0,5% para los años 2017 y 2018. ELA denuncia la actitud de la empresa, que, no olvidemos, en 2016 tuvo unas ganancias de más de 3 millones de euros y con buenas previsiones para el año 2017.




## • Las trabajadoras de los hoteles de Gipuzkoa rechazan la externalización

Convocados por todos los sindicatos con representación en el sector, el 12 de octubre se realizó una concentración ante el Hotel Londres de Donostia para denunciar la situación por la que está atravesando la negociación colectiva en el sector de los hoteles de Gipuzkoa y proseguir con el calendario de movilizaciones al que iniciaron el 29 de septiembre. Uno de los objetivos es acabar con la externalización.

## • ELA espera que se haya evitado definitivamente la Ley de Policías de Navarra

El Parlamento Foral de Navarra rechazó el 19 de octubre la Ley de Policías. ELA considera este rechazo una buena noticia; la propuesta de Ley empeoraba las condiciones de trabajo, aumentaba la flexibilidad y suponía mayor arbitrariedad y amiguismo.

ELA considera que la tramitación de este proyecto de Ley ha sido un despropósito desde el inicio y debe tener consecuencias políticas. ELA lamenta la incapacidad negociadora de la Consejería de Interior y la disposición por parte de EH Bildu y Geroa Bai de aprobar una Ley que no contaba con el apoyo de la mayoría sindical.

En ese sentido, nuestro sindicato valora positivamente la decisión tomada por Podemos e Izquierda-Ezkerra de no apoyar una ley que no tuviese el apoyo de la mayoría sindical, respetando así principios democráticos básicos en la negociación colectiva como son el respeto a las mayorías.

## • Arcelor-Mittal multinazionalak kaleratze gehiago egin nahi ditu Bergan

Arcelor Mittal taldeko zuzendaritzak urriaren 18an enpresa-batzordeari jakinarazi zion Bergarako lantegian berriz ere kaleratzeak egin nahi dituela. Industria eta Eraikuntza federazioak Deba Eskualdean duen arduradun Patxi Zubizarretak salatzen duenez, multinazional honek Bergarako lantegia erosi zuenetik ez da inbertsiorik egin.

"Ez da ageri enpresaren inolako konpromisorik. Altos Hornos zenetik langile kopurua etengabe murriztu dute; orain lanean ari direnen batez besteko adinak nabarmen uzten du Arcelor Mittalen helburua urte gutxiren buruan ixtea dela. Enpresak logistika esternalizatu nahi du, edo bestela langileak aurrez erretiroa hartzera behartu, baina edonola ere etorkizuneko konpromisorik ez du hartzen. Egiari zor kezkatuta egoteko arrazoiak baditugu. Epeka egiteko asmoa dagoen itxiera bat izan bailiteke hau, duela urte asko planifikatua. Inbertsioak egin behar dira, egungo jarduera eta lantegiaren etorkizuna bermatuko bada".

astekaria

## La plantilla del Grupo CEL sigue movilizándose en defensa de un proyecto industrial que garantice la actividad del Grupo y sus puestos de trabajo

# "DIPUTACIÓN Y ADMINISTRACIÓN CONCURSAL VAN DE LA MANO"



La plantilla del Grupo CEL realizó la semana pasada numerosas movilizaciones en defensa del proyecto industrial y para exigir a las administraciones públicas que se impliquen en la solución de este conflicto. Josean Fernández, responsable de Industria eta Eraikuntza en Ezkerraldea-Kadagua, destaca la firme decisión de la plantilla de seguir luchando en defensa de sus puestos de trabajo.

"El 19 de octubre se celebró la segunda reunión con la Administración Concursal, donde volvimos a exigir que retire el ERE de extinción. El Administrador Concursal quiere presentar ante el Juzgado Mercantil unos pliegos de condiciones para la recepción de ofertas en la adquisición del Grupo CEL. Le volvimos a pedir que estos pliegos no excluyan a ningún inversor y que vayan encaminados al mantenimiento de todos los puestos de trabajo y las condiciones laborales. Nos parece inaceptable que, aunque haya ampliado el plazo –del 24 al 2 de noviembre– se utilice ese plazo como arma para chantajear a los y las trabajadoras. La decisión para la resolución del expediente no se producirá antes del 13 de noviembre".

Dentro de las movilizaciones que se realizaron la semana pasada hubo una acampada frente a la Diputación de Bizkaia y una marcha desde Zalla hasta la sede de la Diputación. Fernández destaca que el objetivo de estas movilizaciones es exigir a la Diputación que se implique en la búsqueda de una solución al conflicto. "A día de hoy la Diputación Foral no se ha comprometido a ser garante del mantenimiento de todos los puestos de trabajo en CEL, y tampoco vemos ningún compromiso de hacer respetar las condiciones de trabajo. Del Gobierno Vasco no tenemos noticias. Hay que recordar que pocos días antes de que el Grupo CEL entrase en concurso, el Gobierno Vasco era accionista de la empresa en un 40%. Desapareció de forma vergonzosa y no ha vuelto a aparecer".

"En este sentido, –recalca– tanto Administración Concursal como Diputación de Bizkaia van conscientemente de la mano en este concurso, con el objetivo de presionar a los y las trabajadoras para que aceptemos un destrozo tanto en el empleo como en las condiciones de trabajo. Nos parece una estrategia impresentable que se va a encontrar con la frontal oposición de los trabajadores/as de CEL".

Por último, Fernández exige tanto a la Administración Concursal como a la Diputación Foral de Bizkaia que cambien radicalmente su estrategia. "Entendemos que hay posibilidades de encontrar un inversor para el futuro de CEL que no suponga ninguna pérdida de puestos de trabajo, ni el destrozo de las condiciones laborales. Pero para ello hace falta una voluntad política que a día de hoy no vemos por ninguna parte".

# "LANGILE PUBLIKOEN SOLDATAK, 2010KOEN AZPITIK"




Urriaren 19an Euskal Autonomia Erkidegoko Mahai Orokorreko bilera egin zen Gasteizen. ELA-Gizalaneko idazkari nagusi Igor Eizagirrek bileraren irakurketa ezkorra egiten du. "Eusko Jaurlaritzak egin zuen eskaintza akordiorako aukera blokeatzen jarraitzen du. ELAtik hainbat proposamen eraman genituen, eta Eusko Jaurlaritzak horiek guztiak baztertu zituen, bata bestearen atzetik. Gobernuak egin zituen eskaintzak lehengo hitzarmenen azpitik daude".

Igor Eizagirreren ustez Urkulluren gobernuak soldata eta baldintza soziolaboralen arloan egin dituen proposamenak adar jotze hutsak dira. "Iragarritako soldata igoera –%1,5ekoa– beste galera bat izango da enplegatu publikoen eroste-ahalmenerako; igoera hori kontutan hartuta ere Administrazio publikoko langileen soldatak 2010eko hitzarmenean ezarritako mailatik beherago egongo dira. Gainera, 2012ko aparteko ordainsariaren laurdenari dagokionez, langileei ordainsari hau itzultzen dion azken Administrazioa da Jaurlaritza".

Egoera honen aurrean, ELAk dei egiten die langileei euskal administrazio publikoko sektore desberdinetan antolatuko diren mobilizazio eta lanuzteetan parte hartzera.

"Agerikoa da euskal sektore publikoa desegiteko Jaurlaritzak duen asmoa. Ez dugu mobilizatu beste aukerarik egoera hau irauli nahi badugu".

*"En la reunión de la Mesa General el Gobierno Vasco bloqueó cualquier posibilidad de acuerdo. Rechazó todas las propuestas de ELA y mantuvo ofertas por debajo de los convenios ya suscritos"*

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria
Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00
www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207